

A person with a bull's head is shown from the chest up, wearing a white t-shirt with a green collar and a 'SAN DIEGO' logo. The person is holding a black object, possibly a microphone or a small bag, in their right hand. The background is a bright blue sky with white clouds. The text 'LOKO' is visible in the upper left, and 'TE' and 'SIA' are visible in the lower left, suggesting the title 'TE SIA' is partially obscured.




**T**

**10 URTE. NAHI  
BESTE TABAKALERA**



2  
0  
1  
5

2  
0  
2  
5



tabakalera.eus

**10 URTE. NAHI  
BESTE TABAKALERA**

**T**

**Langileen alde**

*Donostia  
abordatu!*



**LAIB<sup>7</sup>**

**EUSKAL  
SINDIKALISMO  
ERALDATZAILEA**

# Disfrutatu

Eta, zu zer zara «Izan gaitezen bihurri, izan gaitezen pirata...» eta «Izerdiek merezi dute, aurtzaka goaz...» abesten dutenetakoa ala «Artillero, dale fuego...» abesten dutenetakoa? Ala biak? Ala ez bat eta ez bestea? Donostiaren barruan Donostia asko dauden moduan, Aste Nagusia bizitzeko hamaika modu daude Aste Nagusian.

Egunez bizi daiteke Aste Nagusia, Donostiako Piratek edo udalak auzoetan zein erdigunean antolatutako haur, gazte eta helduentzako jardueretan parte hartuz. Gauez bizi daiteke, su artifizialekin, zezensuzkoekin, kontzertuekin, parranda giroarekin, eta abar. Egunez zein gauez bizi daiteke, lo gutxi eginda eta hala moduz aguantatuz. Eta Aste Nagusia bera bizi gabe ere bizi daiteke, jaietako jarduera bakar batean ere parte hartu gabe; hori ere bada Aste Nagusia bizitzeko modu bat.

Askok, bestalde, lanean biziko dute Aste Nagusia: txosnetako lan militantean, tabernetan zerbitzari gisa, kale garbiketan, zaintza lanetan, IRUTXULOKO HITZAN jaien jarraipena egiten eta jaietatik kanpoko lanetan. Animo guztiei!

Jaiak herriarenak dira, denonak, baina urteroko lege, aldarrikatu behar dugu jaiak ez direla benetan jai izango denontzat libreak ez diren arte. Inolako erasorik gertatzen ez den arte. Denok jaiak disfrutatu ahal izan arte; funtsean, eta beste ezeren gainetik, horretarako baitira jaiak, disfrutatzeko.

Aprobetxatu dezagun, bada, Aste Nagusi hau bakoitzak nahi duen moduan bizitzeko, Aste Nagusia bizitzeko modu berriak ezagutzeko, saretzeko, herri gisa dugun onena erakusteko eta, batez ere, disfrutatzeko. Pasatu orrialdeak eta egin zure plana!



 Ametzagaña, 19, behea, 20012 Donostia

 943-46 72 36

 donostia@hitza.eus

**Argitalpen data:** 2025eko abuztua

**Lege Gordailua:** SS-226-05

**Testuak:** Erredakzioa

**Argazkiak:** Erredakzioa

**Diseinua:** Oier Arribas Ciria

**Publizitatea:** Aizpea Aizpurua Arroio  
aizpurua@hitza.eus · 688-60 71 08

**Irutxulo**  
**.hitza**  
**.eus**



# ASTE NAGUSIA

*Diratak*





Irati Gastesi Orbegozo (Antigua) eta Argiloa Pinzolas Eizagirre (Gros), Donostiako Piratetako lantalde feministako kideak.

## Aste Nagusiaren bihotza: feminismoa, zaintza eta aldarrikapena Donostian

Donostiako Aste Nagusia ospakizun hutsetik harago doa. Jaiak guztiontzako seguruak eta askeak izan daitezen, urte osoan zehar egiten den lanketa kolektiboa ezinbestekoa da, eta mugimendu feministak du erdigune horretan zeregin nagusia.

📷 June Agirre Ansa

**A**buztuko aste bero batean ospatzen bada ere, irailean hasten da Aste Nagusiaren bihotza taupaka. Balorazioak egin, hutsuneak identifikatu eta urtez urtez ikasitakoa praktikara eramatea izaten dute helburu. Piraten lantalde feministako kideek honela diote: «Urtean zehar egiten dugu lan,

hilabeteen behin elkartzen gara eta azken hilabeteetan intentsitatea handitzen doa».

### Zaintza sareak eta entzute ariketak

Urte osoan egindako lan horretan, zaintza eta entzute ariketek pisu berezia dute. Urtero, kofradien eta lantaldeen egoerak eta beharrak aztertzen dituzte, hutsuneak

identifikatzeko eta mugimenduaren osasuna zaintzeko helburuarekin. «Ahalegina egiten dugu elkargu-neak bilatzeko eta urtean zehar jende gehiago batzeko», azaldu dute.

Horri lotuta, lantalde feministatik Euskal Emakume Pentsiodunen plataformaren (Oneka) aldarri eta borrokarekin bat egiten dute, «merezi duten aitortza emanez». Emakume pentsiodunek egindako borroka eta haien zaintza eredua erdigunean jarri nahi dute, mugimendu feministarekin eta herri mugimenduarekin lotuz. Hain zuzen ere, belaunaldi arteko aliantzak sendotzearen garrantzia azpimarratu dute, zaintzak kolektiboa eta komunitarioa izan behar duelako eta emakume pentsiodunen borrokak gure herrietako auzoak eta komunitateak indartzen dituelako. «Onekak egiten duen lanari eta borrokari merezitako balioa eman nahi diogu, eta haiekin aliantzak ehuntzen jarraitu, borrokak bateratu eta zaintza erdigunean jarri», gehitu dute.



Donostiako Piratetako lantalde feministako hainbat kide, Bretxan Andresa Portugalen omenez egindako horma irudian. **📷 DONOSTIAKO PIRATAK**


## Erasoen aurkako protokoloa eta puntu morea

Aste Nagusian, puntu morea izango da babes eta salaketa gune nagusia. «Gure eguneroko bizitzetaz ematen dira mota askotako erasoak: sexis-tak, LGTBQ+fobikoak, arrazistak, kapazitistak, lodifoboak... eta horien aurrean puntu moretik protokoloa martxan jartzen dugu», azaldu dute. Erasoren baten berri izatekotan, eraso pairatu duena babestea eta bere nahiak errespetatzea dute helburu, bere hitza zalantzan jarri gabe.

## Belaunaldi arteko aliantzak sendotzearen garrantzia azpimarratu dute, zaintzak kolektiboa eta komunitarioa izan behar duelako

Erasoa jasan duenak artatze profesionalagoa behar badu, Emagin elkarteak kudeatzen duen Bulebarreko artatze puntura lagundu ohi diote, jakitun baitira artatze horiek profesionalek egin behar dituztela. Gainera, puntu moreko txandekin batera, kuadrilla txandak ere antolatzen dituzte, txip aldaketa sustatzeko, erasoak identifikatzeko eta mozteko. Gauero, kofradia batek hartuko du ardura hori, kaleetan jarrera aktiboa mantenduz.

Azken asteotan ikusitako gertakariak kezka handitu dute



**ONDO PASA JALETAN!**

**CACTUS**

**TABERNA**

**943-05 41 67**

**PLAZA BERRI · EGIA**



**TAMAYC**

DONOSTIA 1914

papeleriatamayoc.com

Legazpi kalea, 4

lantalde feministaren baitan, eta egoera kezkarria adi egoteko deia egin dute: «Ez dugu inolako gorroto erasorik onartuko, eta puntu morearen bidez gure helburua jaiak denontzako seguruak izatea da».

### Aste Nagusi Pirata: kaleak hartzeko prest

Aste Nagusia ez da aste bateko kontua, eta Piraten mugimendua horren erakusgarri da. Lantalde feministak urte osoan kofradiekin batera lan egiten du, hausnarketak eta erabakiak hartzen, ikuspegi feminista Aste Nagusiaren egitarauetan txertatzeko helburuarekin. Horri esker, kofradiek antolatutako jardueretan begirada kritikoa lantzen dute, hausnarketa eta autokritika eginez.

Aurten ere, kaleak hartzeko prest daude. Abuztuaren 16an, 19:30ean, agerraldi feminista egingo dute eta, aurreko urteko esperientzia onean oinarrituta, Kalejira Transfeminista aldarrikatzailea antolatu dute abuztuaren 12an, asteartean, Sardiñerak kofradiarekin elkarlanean. «Donostiako kaleak errebelodia transfeministaz jantzi nahi ditugu», adierazi dute. Ondoren, Maruxak-en ikuskizuna ikusi ahal izango da, eta gaua Lumatza festarekin amaituko dute.

### Festa, aldarrikapen eta zaintzarekin

Piraten egitarauaren barruan, kalejira hau ez da ekitaldi isolatu bat izango, erasoaren aurrean

autodefentsa feministaren bidez erantzuteko konpromisoa erakutsi dutelako lantaldekoek. «Erasoek gertatzen jarraitzen duten bitartean, aurrean egongo gara. Eta, hauei aurre egitea denon ardura da», nabarmendu dute.

Aldi berean, Presoen Aldeko Eguna, Gazte Eguna, Piraten Eguna eta beste hainbat ekimen ere izango dira, jaiak eta aldarrikapenak eskutik joan daitezkeela erakutsiz.

**Festak soilik momentu puntual bat ez izatea, baizik eta komunitateak ehuntzeko eta elkar zaintzeko espazio erreala bat izatea nahi dute**

### Erronka handia, indarra kolektiboan

Aste Nagusiak Donostiako kaleak kolorez, musikaz eta dantzaz betetzen ditu, baina festaren atzean, askotan, ikusezina den urte osoko lan nekaezina dago. Festaren momentu gorenei eta irudirik alaienei eusten diena da urte osoan egindako prestaketa kolektiboa, kofradien eta lantaldeen arteko elkarlanari eta konpromisoari esker gauzatzen dena. «Hutsune bat ikusi dugu, momentua iritsi denean jende gehiago behar dela konturatzen gara», azaldu dute, eta urtean zehar

parte hartzeko gonbidapena luzatu dute, antolakuntzan sakondu eta ardura partekatze beharra nabarmenduz.

Mugimenduaren osasuna eta indarra kolektibitatean dagoela sinetsita, festaren espiritua zaintza sare, elkartasun eta aldarrikapen sare bihurtzeko lanean jarraituko dute. Festak soilik momentu puntual bat ez izatea, baizik eta komunitateak ehuntzeko eta elkar zaintzeko espazio erreala bat izatea nahi dute, Donostian jai herrikoiak eta askatzaileak posible direla erakutsiz.

Donostiako Aste Nagusiak jai feminista eta askatzaile bat izateko erronka dauka aurten ere, eta hori mugimendu feministaren lanari, auzoetako kofradien inplikazioari eta herritarren konpromisoari esker soilik izango da posible. Jai herrikoiak guztionak dira, baina guztiok seguru eta aske sentitu behar dugu, eta horretarako ezinbestekoa da erasoaren aurrean protokolo eraginkorrak izatea, zaintza kolektiboa antolatzea eta kaleak hartzeko ausardia praktikara eramatea. Aste Nagusiak zapalkuntza egoeran dauden pertsonak erdigunean jarri behar ditu, euren ahotsak entzunak izan daitezkeen eta espazioak askatasunez gozatu ahal izateko. Horregatik, festaren parte diren guztiei deia egiten diete: «Zaintza eta ardura guztion kontua da, eta jaiak guztion artean eraikitzen dira, auzolana, elkartasuna eta borroka feminista uztartuz, Donostiako kaleak askatasunez eta bizitzaz betetzeko». ●

E  
N  
B  
A  
T  
A



Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA  
943424797 - 609314962  
enbatadenda@gmail.com  
www.enbata.eus

Ondo pasa Aste Nagusi Piratan!

# Piraten egitaraua



## LARUNBATA 9

- 14:00**  
Kofradien bazkariak.
- 17:00**  
Pretxupinazioa Pasai txarangarekin, San Telmo museotik hasita.
- 19:00**  
Ezkila eta Mattiri ongietorria, Moilaberrian.
- 19:30**  
Txupinazoa, Flamenkan.
- 20:00**  
Afariak, Trinitate plazan.

- 23:05**  
Kontzertua, Flamenkan:  
Orekka erromeria.  
Kontzertua, Trinitate plazan:  
Revolutionary Brothers.

## IGANDEA 10

- 10:00**  
Artisau Azoka,  
Flamenkan.
- 12:00**  
Urgullera igoera,  
Flamenkatik hasita.
- 13:00**  
Haur jolasak, Santiago Baterian.

- 14:00**  
Traganarruen bazkaria eta jolasak,  
Intxaurren. Tikitak: Kai, Eratzun eta  
Zulo Zahar tabernetan salgai.
- 14:00**  
Bazkaria (etxeke jana), Urgullen.
- 15:00**  
Mus txapelketa, Trinitate plazan.  
Izen ematea: 620-85 02 00.
- 15:30**  
Joxe Mendizabalen erromeria, Urgullen.
- 17:00**  
Estandeak aboratu!, Intxaurren.
- 17:30**  
Urgulletik jaitsiera.



**euskara  
praktikoa**

### Euskara eroso ikasi eta bizi

## DONOSTIA

### EUSKARA - IKASTAROAK

**Antiguako AEK**  
Erregezain, 22 · 943 21 80 88 · [antigua@aeik.eus](mailto:antigua@aeik.eus)

**Amara Berri AEK**  
Ordoñez 7 (ARCCO parean) · 943 47 45 92 · [amara@aeik.eus](mailto:amara@aeik.eus)

**Groseko Irrintzi AEK**  
Iztueta 3, behea · 943 32 76 11 · [gros@aeik.eus](mailto:gros@aeik.eus)



**19:00**

Bakarrizketak, Lastan.

**20:00**Playback lehiaketa, Lastan.  
Afariak, Trinitate plazan.**23:05**Kontzertuak, Flamenkan: Olatz Salvador  
eta Izaki Gardenak.Kontzertua, Trinitate plazan: Peppermint  
Sextet.

## ASTELEHENA 11

**09:30**

Baltzen muntaketa, kaian.

**14:00**

Bazkari herrikoia, Flamenkan.

Tiketak: Trikuharri, Marruma eta Herria  
tabernetan salgai.**17:00**

ABORDATZERA!

Izen ematea: [Donostiakopiratak.eus](http://Donostiakopiratak.eus)**18:00**Elektrotxorongo elektrotzaranga,  
Kontxatik hasita.**20:00**

Kontzertua, Flamenkan: Goxua'n Salsa.

**20:00**

Afariak, Trinitate plazan.

**23:05**Kontzertuak, Flamenkan: Hofe eta  
La Txama.

Kontzertua, Trinitate plazan: Andoni Ollokiegi.



## ASTEARTEA 12

**10:30**

Señora gosaria, Lastan.

**12:00**Beanitada: Bea Egizabalen 'Gregoria'  
bakarrizketa eta marianitada, Lastan.**14:30**Bazkari disidentea eta Bollingoa, Lastan.  
Tiketak: Platero eta Ensantxen salgai.**17:00**

Bertso saioa Trinitate plazan.

**18:00**Kalejira aldarrikatzaile transfeminista,  
Lastatik hasita.**20:00**

Afariak, Trinitate plazan.

**20:30**Kontzertua, Flamenkan:  
Maruxak.**23:05**Kontzertuak, Flamenkan: Labar eta  
Euskoprincess.Kontzertua, Trinitate plazan:  
Larre.

PLATERO  
taberna



LAIA  
ABOKATUAK

**Ondo pasa jaiak !**

Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30  
Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia





Tiketak: Trikuharri, Marruma, Zulo Zahar eta Herria tabernetan salgai.

**16:00**

Bingo musikatua, Flamenkan.

**16:30**

Joselontxos txaranga, Flamenkatik hasita.

**19:30**

Kartelada eta bals dantza senideekin, Flamenkatik hasita.

**20:15**

Bertso-poteoa, Flamenkatik hasita.

**20:30**

Karaokea, Lastan.

**23:05**

Kontzertuak, Flamenkan: Marte Lasarte eta Sukena.

Kontzertuak, Trinitate plazan: Ekiza & Xak eta Pelax.

## LARUNBATA 16

**12:00**

Muxikoak, Lastan.

**14:00**

Xibaro bazkaria. Tiketak: Platero, Herria, Zulo Zahar eta Kixkurra tabernetan salgai.

**17:30**

Kontzertua, Lastan: Mexikortxo(R) Band.

**19:30**

Agerraldi feminista, Flamenkan.

**23:05**

Kontzertuak, Flamenkan: Indabe eta Lukiek. Kontzertua, Trinitate plazan: La Jodedera.

### Afariak

Ostiraleko eta larunbateko afariak, lastan.

# GROSEKO INDARRA SURF ESKOLA TALDEA

IKASI, GOZATU  
BIZI, ELKARBANATU

 **695-75 44 71**

 **grosekoindarra.com**



Tel.: 943-27 97 96

Bazkariak

**KATA**  
ecia

Ondo pasa jaiak!



## ORDIZIA TABERNA


San Lorenzo kalea, 6  
20003-Alde Zaharra-Donostia  
tel.: 943-42 24 24  
[www.ordiziataberna.com](http://www.ordiziataberna.com)



Ondo pasa  
jaiak!

OGITARTEKOAK ETA PINTXO BEROAK

# ASTE NAGUSIKO HARPIDETZA BEREZIA




**Lortu zure harpidetza digitala  
eta gozatu abantaila guztietaz**


# **20 EUROAN!**



# ASTE NAGUSIA

*Udala*





# «Su artifizialak babestu behar ditugu, globalizazioaren aurrean»

## IZASKUN ASTONDOA

Su Artifizialen Lehiaketako epaimahaikidea

Donostiako Aste Nagusiak jendea masiboki erakartzen duen ikuskizunik baldin badu, hori su artifizialena da. Gauero-gauero, zerura adi begiratzen du Izaskun Astondoak (Arratia, Bizkaia, 1962) ere, lehiaketako epaimahaikide izan baita azken urteotan, eta hala izango baita aurten ere. Su artifizialei puntuazioa ematerako orduan, ikuskizunaren harmonia oso kontuan izaten du Astondoak, baina, adi: publikoaren txaloez ere asko dute esateko.

📍 Garazi Etxaniz Idarreta

**Zer nolakoa iruditzen zaizu Donostiako su artifizialen lehiaketa?**

Europa mailako su artifizialen lehiaketarik zaharrena da Donostiakoa, eta horrek puntu berezia ematen dio. Gainera,

Donostia bere horretan oso leku ederra da su artifizialez gozatze-ko. Urteak pasatu ahala, eraldatu egin da lehiaketa, piroteknia ere eraldatu den moduan: gero eta produktu gehiago existitzen dira, eta diseinuak ere askotarikoak

dira. Hala ere, parte hartzen duen enpresa bakoitzak bere ukitu pertsonala ematen dio ikuskizunari, ez dira kalkomania hutsak. Epaimahaikide gisa, hori asko eskertzen da.

Izan ere, nik behintzat, nazioarteko lehiaketetan aintzat hartzen ditut su artifizialen arteko desberdintasunak. Donostiaren kasuan, zazpi gau izaten dira, eta hori oso atsegin dut. Gau bateko ikuskizuna gehiago gustatuko zaigu eta hurrengo gauekoa gutxiago, baina desberdintasunak ikusiko ditugu, eta hori beti da ona.

**Zer irizpide hartzen dituzue kontuan suen puntuazioa egiterako garaian?**

Zerrenda batean finkatutako zenbait aldagai hartzen ditugu kontuan: suen kolorea, zerua zenbateraino estaltzen duten, soinua, harmonia... Soinuak eta koloreek bat egitea garrantzitsua da niretzat, amaierako trakaz haratago, ikuskizunean zehar ere soinua baitago. Aldi berean, epaimahaikideek kontuan hartzen dugu ea piezaren bat bereziki deigarria egin zaigun.

Bestalde, eta ezinbestean, adi begiratzen dugu publikoaren erantzuna nolakoa izan den: soilik amaieran txalo egin du, ala ikuskizunean zehar ere txalo egin du? Isiltasunek ere asko iradokitzen dute. Batzuetan, su artifizialek azkarregi funtzionatzen dute eta ez da isilunerako astirik uzten, baina, beste batzuetan, pausak egoten dira, eta jendeak zenbateraino txalo egiten duen entzun dezakegu. Azkenean, aditua izatea ez da guztiz beharrezkoa su artifizialak onak diren ala ez jakiteko.

Eta, noski, puntuatzerako orduan ezin dugu alde batera utzi su artifizialek sentimentalki epaimahaikide bakoitzarengan izan duten eragina, baina hor bakoitzaren ikuspuntua, egoera eta emozioak sartzen dira jokoan.

**Nolakoa da epaimahaikideen lana Aste Nagusian zehar?**



Jende asko biltzen da urtero su artifizialak ikusteko. 📺 **DONOSTIAKO FESTAK**

“

**«Adi begiratzan dugu publikoaren erantzuna nolakoa izan den: soilik amaieran txalo egin du, ala ikuskizunean zehar ere txalo egin du?»**

Sei bat kide izan ohi gara eta egu-  
nero elkartzen gara suak ikusteko.  
Momentuan bertan, iritziak par-  
tekatzen ditugu, baina, ondoren,  
bakoitzak bere etxean egiten du  
lan. Gaur egun, EITBk suak gra-  
batzen dituzenez, behin eta berriro  
ikus ditzakegu ikuskizunak; auke-  
ra izaten dugu ekitaldiak irauten  
duen hamabost minutu horietan  
ikusi ez ditugun gauzak berrikusi  
eta ohar gehiago hartzeko.

Larunbatean, azken egunean,  
berriro elkartzen gara eta mo-  
mentu hartan hausnartzen dugu  
sakon su artifizial bakoitzaren  
gainean, behin betiko puntua-  
zioak esleitzeko.

**Zein ekarpen egiten diete su arti-  
fizialek hiriari eta donostiarrei?**

Jasangarritasuna, kutsadura zein  
poluzio akustikoa direla eta azke-  
naldian eztabaida sorrarazi duten  
arren, nire ustetan, suak ekarpena  
egiten diote hiriari, bai artistikoki,  
bai kulturalki. Suak berak osagai  
emozional oso indartsua du, eta  
zure egoera emozionalarekin  
bat datorrenean, gogoangarria  
izaten da. Su artifizialena oso arte  
iragankorra da, ez da inoiz era be-  
rean errepikatuko, meteorologia  
eta pertsonaren egoera emozio-  
nala ez delako inoiz berbera.

Donostia hamabost minutuz  
geldi geratzen da, piztu, itzali, piz-

tu, itzali eta berriro ere pizten den  
ikuskizunari so. Aste Nagusian  
zehar antolatzen diren beste jar-  
duera askoren moduan, ekarpena  
egiten diote Donostiari, baina, su  
artifizialen kasuan, adin guztie-  
tako pertsonentzako ikuskizuna  
izanik, jarduera guztien artean  
erakargarrienetarikoa ere badela  
esango nuke.

**Zer transmititu behar du su arti-  
fizial perfektuak?**

Nire ustez, soinuaren eta kolo-  
rearen arteko oreka izan behar  
du. Kolorea dut bereziki gustuko,  
baina soinuak ere lagundu egin  
behar du. Ikuskizunak harmo-  
nikoa izan behar du, zerua ondo  
estali behar du, piezak ondo  
ikusi behar dira. Ez dut gustuko  
nahasmena, ez baitu aukerarik  
uzten hamabost minutu horien  
atzean dagoen lan guztia balioan  
jartzeko.



Azken urteotako Aste Nagusiko bateko su artifizialak.  **DONOSTIAKO FESTAK**



## «Ikuskizunak harmonikoa izan behar du, zerua ondo estali behar du, piezak ondo ikusi behar dira»

Bihotza ukitzea ere oso garrantzitsua da. Batzuetan, ikuskizun bera ikusten jarraituko nuke denbora luzez, eta, aldiz, beste batzuetan noiz bukatuko den itxarotea besterik ez zait geratzen. Ez dakit zehazki zer den gauza bata ala bestea eragiten

duena, baina, nire kasuan, su artifizialen harmonian jartzen dut fokua.

### Gogoan duzu bereziki gustatu zaizun ikuskizunik?

Nik oso gogoko ditut, oro har, su artifizial japoniarrak, eta, behin, piroteknia saio japoniar bat ikusten ari ginela, zeharo liluratuta geratu nintzen. Euria ari zuen, eta su artifizialak oso desberdinak izan ziren, normalean ikusten dugunarekin alderatuta. Bi arrazoi horiengatik, nirekin zeudenak kexaka hasi ziren, baina niri, ordea, izugarria iruditu zitzaidan ikuskizuna. Ildo beretik, garrantzitsua iruditzen zait su artifizial japoniarrak (edo beste edozein herrialdetakoak)

ikustera joatean, tokiko berezitasunak edukitzea. Janariarekin gertatzen den bezalaxe: jabetxe asiar batean, Asiako janaria dastatu nahi dut. Su artifizialak babestu behar ditugu, globalizazioaren aurrean.

Japoniarren kasuan, su artifizialek atalka funtzionatzen dute, eta, egun hartan, atal bakoitza miresgarria iruditu zitzaidan. Hori bai, kontziente naiz ikaragarri garestia dela Japoniako enpresa piroteknikoak Donostiaino ekartzea, garraioa ez ezik, su artifizialak ekoizteko duten modua eta piezak erabat desberdinak eta nahiko konplexuak direlako. ●

**ONDO PASA FESTETAN!**

**DELTA**  
PAPELERIA

**Eskolara itzulera %15eko deskontua Irailaren 1etik - 14ra**  
(Motxila, agenda, diseinua eta informatikan izan ezik)

Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 19:30  
Larunbata: 10:30 - 13:30  
Andrestegi, 2 behea - ANTIGUA - Donostia  
943-22 38 98 - 663875255 [deltapapelerias@gmail.com](mailto:deltapapelerias@gmail.com)

[deltapapelerias.com](https://www.deltapapelerias.com)

 **Atlas**  
fisioterapia

**Heriz 10, behea (Antigua) 943-31 14 00** **info@atlasfisio.eus**  
**www.atlasfisio.eus**



# Udalaren egitaraua

## EGUNERO

### Egun osoan zehar

Zurriola Street Food, hainbat herrialdetako kalean kontsumitzeko eskaintza gastronomikoa.

Barrakak Pasealeku Berrian.  
Haurrentzako barrakak Gipuzkoa plazan.  
Egun merkeak: 8a eta 18a.  
Zaratarik gabeko egunak: 8a, 13a, 15a eta 18a (16:30-18:30).

## OSTIRALA 8

### 17:00-20:00

Aste Nagusiko XX. Hondartza Boleibol Txapelketa, Zurriola hondartzan.

## LARUNBATA 9

### 09:00-20:00

Aste Nagusiko XX. Hondartza Boleibol Txapelketa, Zurriola hondartzan.

### 09:00-14:00

Euskal Herriko nekazal produktuen XII. azoka berezia, Loiola kalean.  
Haurrentzako jolasak egongo dira.

### 16:00

Aste Nagusiko XXX. Esku Pilota Txapelketa: finalurrekoak, Trinitate plazan.

### 18:00

Erraldoiak eta buruhandiak Erdialdean eta Parte Zaharrean. Irteera Larramendi kaletik.

### 18:15

Goazen kanoikadara! Trinitate plazatik.

### 18:25

Kanoikadaren erritmoan! Gauerdi eta Joselontxos taldeekin.

### 19:00

Festa hasierako kanoikada, Alderdi Ederren.

Joselontxos txaranga Parte Zaharrean.



Gauerdi txaranga Bulebarrean eta Parte Zaharrean.

### 19:20

Holi festa: Aitana DJ-a, Grandes B2B, Troti DJ-a eta Lorea Intxausti.

### 20:00

Hamabostaldia: Amaia, Jesus Guridi  
Euskadiko Orkestrarekin eta Easo Abes-  
batzarekin opera, Kursaal auditorioan.

### 20:30

XLVIII. Txistulari Alardea, Plaza Berrian.

### 20:30-22:00

Artie Escolar DJ-a, Erizainen plazan.

### 22:45

Su Artifizialen Nazioarteko 60. Lehiaketa,  
Kontxako badian. Lieto Fireworks (Italia).

### 23:30

Zezensuzkoaren entzierroa. Ibilbidea:  
Miramar, Andia, Hernani eta Bulebar.

### 23:30-02:00

Kursaal gune zabala. Urbano Gaua, Erizai-  
nen plazan: Kloakas Sessions, Laz Lazaro,  
Oihana Maitakor, Celi, MC: Rush Blacka.

### 23:30

Tsunami orkestra, dantzaldia, Easo plazan.

Donostiako Musika Eskolako Big Band,  
Bulebarreko kioskoan.

### 23:45

Morodo, Tomas Alba plazan (Sagues).

## IGANDEA 10

### 10:30

Piraguismoa. Zeharkaldia Pasealeku  
Berritik eta Zurriolatik Pasaiaiko portuko  
sarreraraino. Irteera eta helmuga  
Nautikoko ontzirezalekuan.

### 11:00-20:30

Eskulangintza azoka. Gabiltza artisau  
elkartearen eskutik Bulebarrean.

### 11:30-14:30/15:30-20:30

Puzgarriak, Katalunia plazan (Gros).

### 12:00-14:30/17:00-19:30

Artilezko loreak tailerra (6 urtetik gora)  
Maduixa Gorriaren eskutik, Bulebarrean.

### 12:00

Euskal dantza, muxikoak. Bulebarreko  
kioskoan. Musikiariak: Jeiki Hadi taldea.

### 13:00-14:30

Ando DJ-a, Kursaalako Erizainen  
plazan.

**15:00-19:00**

Gizonezkoen eta emakumezkoen (senior) Donostia Hiria Waterpolo Txapelketa, Nautikoan.

**16:00**

Aste Nagusiko XXX. Esku pilota txapelketa. Finalaurrekoak, Trinitate plazan.

**17:30**

Aste Nagusiko VI. bandera. Emakumezkoen estropada, ETE liga. Irteera eta helmuga: Mundaiz zubia.

Zaldi lasterketak. Behorren sari nagusia, Donostiako Hipodromoan.

**18:00**

Erraldoiak eta buruhandiak, Gros auzoan. Abuztuak 31 kaletik abiatuko dira.

**18:30**

Bebes de la Bulla txaranga, Parte Zaharrean eta Erdialdean.

Antigua Band txaranga, Kontxa pasealekuan eta Parte Zaharrean.

**19:15-20:15**

Sivanaren kontzertua, Nautikoan.

**19:30**

Canalense musika taldea, Bulebarreko kioskoan.

**20:00**

Gero Axular dantza taldea, Plaza Berrian.

**20:30-22:00**

Artie Escolar DJ-a, Erizainen plazan.

**22:45**

Su Artifizialen Nazioarteko 60. Lehiaketa, Kontxako badian. Ip-Innovative Pyrotechnik (Alemania).

**23:30**

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebarra.

**23:30-02:00**

Mugi panderoa dantzaldia, Erizainen plazan.

**23:30**

Stylo orkestra, Easo plazan.

Folkesi taldea, Bulebarreko kioskoan.

**23:45**

Vicco musikaria, Tomas Alba plazan.

**ASTELEHENA 11**

**09:30**

Abordatzera! Baltsen muntaketa kaian.

**11:00**

Barrene pilota jokoa, Trinitate plazan.

**12:00**

Aquariumeko Itsas Film Festibala. CIMASUB Urpeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa. Sarrera doan, eserlekuak bete arte.

**12:30**

Bertsolariak, Easo plazan. Parte hartzaileak: Uxue Alberdi, Unai Gaztelumendi, Eli Pagola eta Andoni Rekondo. Gai jartzailea: Unai Elizasu.

**13:00-14:30**

Ando DJ-a, Kursaalera Erizainen plazan.

**15:30-20:30**

Puzgarriak, Katalunia plazan (Gros).

**16:00-20:00**

Donostia Hiria I. Waterpolo Txapelketa. 17 urtez azpikoa. Nautikoan.

**16:00-18:00**

Artzainen herri kirolak, Katalunia plazan.

**17:00**

Abordatzera!

**17:30**

Hamabostaldia: Tabakalera Dantzan. Laida Aldaz, Tabakaleran.

**18:00**

Erraldoiak eta buruhandiak, Erdialdean. Abuztuak 31 kaletik abiatuko dira.

**18:30**

Kitadelpare txaranga, Erdialdean eta Parte Zaharrean.

Tximeletak txaranga, Grosen.

**19:30**

Hamabostaldia: Tabakalera Dantzan. Laida Aldaz, Tabakaleran.

Cia. Ni Mu konpainiaren *Pausa* zirku clown ikuskizuna, Katalunia plazan.

Madridejosko udal banda sinfonikoa (Toledo), Bulebarreko kioskoan.

**20:00**

Goizaldi dantza taldea, Plaza Berrian.

**20:30-22:00**

Artie Escolar DJ-a, Erizainen plazan.



**ILAZKI**  
EUSKALTEGIA

HABEk diruz lagundua  
**HADE** EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

**Ondo pasa  
jaietan!**

www.ilazki.eus · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · ilazki@ilazki.eus

**22:45**

Su Artifizialen Nazioarteko 60. Lehiaketa, Kontxako badian. Pirotecnia Zaragozana.

**23:30**

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebarra.

**23:30-02:00**

Osto eta Jonylikes DJ-ak, Erizainen plazan.

**23:30**

Elvi, Alfontso XIII.a plazan (Antigua).

Agirren orkestra, Easo plazan.

Lova Lois taldea, Bulebarreko kioskoan.

**23:45**

OBK taldea, Tomas Alba plazan.

**ASTEARTEA 12**

**11:00**

Nordic Walking Zeharkaldia. Irteera eta helmuga Katalunia plazan.

**11:00-20:30**

Eskulangintza azoka, artisau elkartearen eskutik, Bulebarrean.

**11:30**

Altxorraren Bila kanoetan. Urumearen garbiketa. Irteera: Latsarien plazako ontziralekutik. Izen emateak online.

**12:00-14:30/17:00-19:30**

Tindaketa natural tailerra (12 urtetik gorakoentzat). Hazi-ko-lore tailerraren eskutik, Bulebarrean.

**12:00**

AIFF Aquariumeko Itsas Film Festibala. Gabriel Garciaren *Harri, papera, harea*.

**13:00-14:30**

Ando DJ-a, Kursaalako Erizainen plazan.

**15:30-20:30**

Puzgarriak, Katalunia plazan.

**16:00-18:00**

Zirku eskola, Katalunia plazan.

**16:45-20:00**

I. Waterpolo Txapelketa *Donostia Hiria*. U15 mistoa, Nautikoan.

**17:30**

Haurrentzako Bizikleta Festa, Bulebarrean.

**18:00**

Aste Nagusiko VIII. Paella Lehiaketa, Katalunia plazan.

Erraldoiak eta buruhandiak, Amara eta Loiolako Erribera auzoetan, Larramendi kaletik abiatuta.

**18:30**

Joselontxos txaranga, Grosen. Pasa txaranga, Erdialdean.

Hamabostaldia. Tabakalera Dantzan. La Cerda, Tabakalerako patioan.

Hamabostaldia. Tabakalera Dantzan. Melania Olcina, Tabakalerako Prisman.

**19:00**

XXX. Egiako Nazioarteko Eskubaloi Txapelketa. Emakumeak: Bera Bera-La Rioja. Egiako kiroldegian.

**19:30**

Irun Hiria musika banda, Bulebarreko kioskoan.

**20:00**

Eskola dantza taldea, Plaza Berrian.

Hamabostaldia. Xabier Anduaga tenorea, Viktoria Eugenia antzokian.

**20:30-22:00**

Artie Escolar DJ-a, Erizainen plazan.

**22:45**

Su Artifizialen Nazioarteko 60. Lehiaketa, Kontxako badian. Parente Fireworks (Italia).

**23:30**

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebarra.

**23:30-02:00**

Kursaal gune zabala. Muxutruk, dantzaldia. Erizainen plazan.

**23:30**

Suite Seda, funk musika. Alfontso XIII.a plazan.

Azabache orkestra, dantzaldia. Easo plazan.

Arima Soul taldea, Bulebarreko kioskoan.

**23:45**

J. Martina eta Dupla, Tomas Alba plazan.

**ASTEAZKENA 13**

**11:00**

Barrene pilota jokoa, Trinitate plazan.

**harte**

Antenak. Eraikinetan instalazio digitalak.  
Mantenua eta erreparazioak.



Antenak, LTD  
eta satellite



Atezain eta bideo  
atezain digitalak



Bideo-zaintza

Ondo pasa jaiak!

📞 943-28 77 42

📍 Zabaleta, 44, 20002 Donostia

12:00

AIFF Aquariumeko Itsas Film Festibala.  
Ibon Gaztañazpiren *Errio*. Doan.

12:30

Bertsolariak, Easo plazan: Oihana Arana,  
Maider Arregi, Andoni Egaña eta Alaia  
Martin. Gai jartzailea: Maddi Labaka.

13:00-14:30

Ando DJ-a, Kursaaaleko Erizainen plazan.

15:30-20:30

Puzgarriak, Katalunia plazan (Gros).

16:00-18:45

4x4 kuadrillako waterpolo txapelketa.

16:00-18:00

Itsasoko herri kirolak, Katalunia plazan.

17:00-20:30

Puzgariak, Aitzol parkean (Amara).

17:00-20:00

Aste Nagusiko II. Begihandi Bere Tintan  
lehiaketa. Aitzol parkean.

18:00

Erraldoiak eta buruhandiak, Antigua  
auzoan. Irteera: Alfontso XIII.a plazatik.

18:30

Antigua Band txaranga, Erdialdean.  
Tximeletak txaranga, Gros auzoan.

19:00-19:45

Waterpolo Donostiako kadete-infantil  
txapelketaren final handia, Nautikoan.

19:00

XXX. Egiako Nazioarteko Eskubaloi

Txapelketa. Emakumeak: Replasa Beti  
Onak – Grafometal La Rioja, Egiako  
kiroldegian.

77 Antiguako Pilota Txapelketa.

Gizonezkoen promesa eta elite mailako  
binakako partidak, Antiguako frontoian.

19:30

Hamabostaldia. Tabakalera Dantzan.  
Idurre Azkue / Jone Amezaga / Jone San  
Martin / Bihotza DJ-ak, patioan.

Bambalua Teatro taldeak *Camino*  
aurkeztuko du, antzerki-komedia  
Katalunia plazan.

Trintxerpe musika banda Illumbe,  
Bulebarreko kioskoan.

20:00

Trebeska dantza taldea, Plaza  
Berrian.

20:30-22:00

Artie Escolar DJ-a, Erizainen plazan.

22:45

Su Artifizialen Nazioarteko 60. Lehiaketa,  
Kontxako badian. Pirotecnia Peñarroja  
(Castello).

23:30

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea:  
Miramar, Andia, Hernani eta Bulebar.

23:30-02:00

Kursaal gun e zabala. XSakara eta Anixe,  
musika urbanoa Erizainen plazan.

23:30

Bengoa DJ-a, Aitzol parkean.

Garazi San Martinen *Bihotz, bi hots, bi  
txotx!* antzerkia, Alfontso XIII.a plazan.

Cafe Irlandes orkestra, Easo plazan.

Cul de Sac, covers Bulebarreko kioskoan.

23:45

Janus Lester, Tomas Alba plazan (Sagues).

OSTEGUNA 14

10:00-13:00

Aste Nagusiko XXIX. Miguel Angel  
Fernandez Oroimenez Arrantza  
Lehiaketa, Urumea ibaian.

11:00-20:30

Eskulangintza azoka, Bulebarrean.

12:00-14:00/16:00-19:00

Ur parke puzgarria, Kursaaaleko Zurriola  
terrazan.

12:00-14:30/17:00-19:30

Kakorratz tailerra (+10 urte), Marta Portela  
tailerraren eskutik, Bulebarrean.

12:00

AIFF Aquariumeko Itsas Film Festibala.  
Stelios Apostolopoulosen Egeoko  
historian igerian. Doan.

13:00-14:30

Ando DJ-a, Kursaaaleko Erizainen plazan.

15:30-20:30

Puzgarriak, Katalunia plazan.

16:00-22:30

IV. Dantz Point Aste Nagusia.



**FISIOTERAPIA**  
**EGFISIOS**  
ERREHABILITAZIOA REHABILITACIÓN



**Ibon Etzeberria**

**ONDO PASA  
JAIETAN!**

**Errehabilitazio eta fisioterapia kontsultategia:**  
722-27 65 01 - Zubietza, 11, behea  
20007 Donostia



**OLIYOS**  
TABERNA JATETXEA

**Ondo pasa  
jaiak!**

**Jose txo**  
**Irurtia Balerdi**

**Erregezaintza 4,**  
**DONOSTIA**  
**Tel.: 943-21 49 89**

DJ-ak, Uliako haztegieta.

### 16:00-18:00

Nire Hiria Eraikitzen. Diseinu, eraikuntza, plangintza jokoak. Katalunia plazan.

### 16:00

Aste Nagusiko XXX. Esku Pilota Txapelketa: finalak. Trinitate plazan.

### 18:00

Ettxekoekin Sukaldean IV. Gastronomia Lehiaketa, Elkano kalean.

Erraldoiak eta buruhandiak, Kontxa pasealekutik. Irteera: Alfonsito XIII.a plaza.

### 18:30

Taupada batukada, Erdialdean. Deiar txaranga, Amaran.

### 19:00

Kanoatan irteera musikatua, Iker Laurobarekin. Irteera: Latsarien plaza. Izen ematea online.

77. Antiguako Pilota Txapelketa. Gizonezkoen promesak eta elite mailako binakako partidak, Antiguako frontoian.

XXX. Egiako Nazioarteko Eskubaloitxapelketa. Emakumeak: Bera Bera – Beti Onak, Egiako kiroldegian.

Erre Produkzioak-en *Grimm anaien parkea*, keinuzko antzerkia, Katalunia plazan.

### 19:30

Harmonie Bayonnaise musika banda, Bulebarreko kioskoan.

Salbe Nagusia, Koruko Andra Mariaren Basilikan, Donostiako Orfeoiarekin.

Hamabostaldia, Tabakalera Dantzan. Jesus Rubio/Luz Prado, patioan.

### 20:00

Acordes Navarros jotak, Plaza Berrian.

### 20:30-22:00

Artie Escolar DJ-a, Erizainen plazan.

### 22:45

Su Artifizialen Nazioarteko 60. Lehiaketa, Kontxako badian. Caballer FX (Valentzia).

### 23:30

Zezensuzkoen entzierroa. Ibilbidea:

Miramar, Andia, Hernani, Bulebarra.

Pasai txaranga, Parte Zaharrean.

Ibai Berriak orkestra, Easo plazan.

Mexico En El Corazon nazioarteko mariatxia eta Rafael Jorge Negrete mariatxia, Bulebarreko kioskoan.

### 23:30-02:00

Kursaal gune zabala. Oilar bataila, Erizainen plazan Erika2Santos eta Aigor.

### 23:45

Sexy Zebras taldea, Tomas Alba plazan.

Festara! Amarako Aitzol parkean, Goratza abesbatza; Antiguako Alfonsito XIII.a plazan, Luberrri abesbatza eta Parte Zaharreko Koruko Ama Birjinaren plazan, Gaztelubideko abesbatza.

## OSTIRALA 15

### 10:00-20:00

Arte azoka, Bulebarrean.

**Mundua, bagoaz.**

**BANOOOA GO!**

**Irentsi mundua  
LABORAL Kutxaren GO! txartelarekin.**

**EZ du komisiorik** Estatu osoko 10.000 kutxazain baino gehiagotan\*

**EZ du komisiorik**, LABORAL Kutxaren aldetik, atzerriko kutxazainetan\*\*

**EZ du komisiorik** dibisa aldatzeagatik.

**GO!** **EZ DU KOMISIORIK, EZ HEMEN\*, EZ ATZERRIAN\*\***

\*Zure probintzian dirua komisiorik gabe ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutxazain-sarea duzu, zure probintzian kanpo, berriz, entitate hauetako kutxazainak erabil ditzakezu: Caja Rural, Cajamar, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Arquia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet Worldwide.  
\*\*LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).

Abantaila honietaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu, 14 eta 29 urte bitartekoa (biak barne). Horrez gain, 18 urtetik aurrera nahitaezkoa izango da entitate honetan Bizum aktibatuta izatea.

**LABORAL**  
kutxa

## 11:00

Pasealeku Berriko LV. Igerialdia. 11:00: haurrak, kaiko kai-muturretik. 12:00: gai-nerakoak, irteera Zurriolako hondartzatik.

Bizikleta eta patinetan jai giro martxa. Irteera eta helmuga Katalunia plazan. Aste Nagusiko VIII. Legatza Saltsa Berdean lehiaketa, Matia kalean (Antigua).

Donostiako erraldioen konpartsa Euskal Herriko Casteller taldearekin eta Castellars de Lleida taldeekin, Abuztuaren 31 kaletik abiatuta. 11:45ean Erraldioen eta Castellarsen baterako emanaldia Alderdi Ederren. 13:30ean Plaza Berrirako irteera. 14:00etan Baterako azken emanaldia, Plaza Berrian.

## 11:00-14:00

Puzgarriak, Gaskonia plazan (Antigua).

## 11:30

Arkaitz Añorgako dantzariak. Irteera: kaitik. 12:00etan emanaldia, Plaza Berrian.

## 11:30-14:30/15:30-20:30

Puzgarriak, Katalunia plazan.

## 12:00-14:00/16:00-19:00

Ur parke puzgarria uretako txirrista erraldoiarekin, Kursaleko Zurriola terrazan.

## 12:00

AIFF Aquariumeko Itsas Film Festibala. *Aquarium*, ezagutu Donostiako Aquariumeko erraiak.

## 12:30

Bertsolariak, Easo plazan. Parte hartzaileak: Maddi Aiestaran, Miren Artetxe, Beñat Gaztelumendi eta Amaia Iturriotz. Gai jartzailea: Aizpea Garmendia.

## 13:00-14:30

Ando DJ-a, Kursaleko Erizainen plazan.

## 16:00-19:00

Haurrentzako eskrima, Igor Otaegi eskrima maisuaren eskutik, Katalunia plazan.

Egurrezko joko erraldoiak, Katalunia plazan.

## 17:00

*Puzzlekaxa 3D* tailerra eta erakusketa, adin guztientzako, 3D inprimaketa tailer interaktiboak, Aitzol parkean.

## 17:15

Zaldi lasterketak: Urrezko kopa, Donostiako Hipodromoan.

## 18:30

Ustekabe txaranga, Antigua auzoan.

Los bebes de la bulla txaranga, Erdialdean.

## 19:30

Zirika Zirkus konpainiak *Aurkitu gabeko altxorra* aurkeztuko du, Aitzol parkean.

Zirko Txosko taldeak *Tavole* aurkeztuko du, Katalunia plazan.

Urrezko kopa. Aizkolariak, Trinitate plazan. Julen Alberdi, Joxean Etxeberria, Hodei Ezpeleta, Mikel Larrañaga eta Iker Vicente.

Haize Berriak Sakanako musika banda (Nafarroa), Bulebarreko kioskoan.

## 20:00

Hamabostaldia. Musika Garaikideko zikloa. Ensemble C Barre, Kursalean.

Verdini dantza taldea, Plaza Berrian.

## 20:30-22:00

Artie Escolar DJ-a, Erizainen plazan.

## 22:45

Su Artifizialen Nazioarteko 60. Lehiaketa, Kontxako badian. Pirotecnia Valenciana.

## 23:30

Gauerd txaranga, Parte Zaharrean.

Olgetan erromeria, Alfontso XIII.a plazan.

Euroshow orkestra, dantzaldia Easo plazan.

Jaian Jai, ibilbidea Euskal Herriko musikan zehar, Bulebarreko kioskoan.

## 23:30-02:00

Kursaal gune zabala. Afro night, Erizainen plazan. Eromena DJ-a eta Eweka DJ-a.

## 23:45

Marlon, Tomas Alba plazan (Sagues).

# LARUNBATA 16

## 10:30

Erreka Mari. Urumeako garbiketa kanoetan. Irteera: Latsarien plazako ontziralekua. Izen ematea online.

## 11:00-20:30

Eskulangintza azoka, Bulebarrean.

## 11:00

Aste Nagusiko XVIII. Marmitako Lehiaketa, Elkano kalean.

## 11:30-14:30/15:30-20:30

Puzgarriak, Katalunia plazan.



# Ondo pasa jaiak!

## Cuesta Aguirresarobe, S.L.

Abokatua / Higiezin kudeatzailea / Finken administrazioa

Mandasko Dukea, 38, behea - Donostia - Tel.: 943-27 03 27 - [xabier@xabiercuesta.com](mailto:xabier@xabiercuesta.com)

**12:00-14:00/16:00-19:00**

Uretako txirrista erraldoia, Kursaleko Zurriola terrazatik.

**12:00-14:30/17:00-19:30**

Makrame tailerra (+7 urte), Sare Makrameren eskutik, Bulebarrean.

**13:00-14:30**

Ando DJ-a, Kursaleko Erizainen plazan.

**15:00**

Estropaden Zeharkaldia, Aste Nagusiko Porsche Saria. Badian, Pasealeku Berrian eta Zurriolan. Irteera: Mollaberria.

**16:00-19:00**

Haurrentzako eskrima, Igor Otaegi eskrima maisuaren eskutik, Katalunia plazan.

Euskal mitologian oinarritutako egurrezko jokoak, Katalunia plazan.

**17:30**

Erraldoiak eta buruhandiak, Abuztuaren 31 kaletik abiatuta.

**18:30**

Igeldoko eta Uliako Harria. Harri jasotzailerak, Trinitate plazan: Paulo Azpiazu, Gorka Etxeberria, Aimar Galarraga, Mikel Lopetegi, Imanol Royo, Iker Sojo eta Beñat Telleria Igeldoko Harrian. Naroa Arruti, Estefania Etxebeste, Olaia Esnaola, Maddi Guesalaga, Sara Jimenez de Aberasturi, Malen Morandeira, Lierni Osa, Elene Ostolaza eta Ainitze Zumeta Uliako Harrian.

Deiadar txaranga, Erdialdean.

**19:30**

Bapatean Zirko taldearen *Adabaki* clown ikuskizuna, Katalunia plazan.

Erriberriko musika banda, Bulebarreko kioskoan.

**20:00**

Hamabostaldia. Musika Garaikideko Zikloa. Silboberri Txistu Elkarte, Kursalean.

Alurr dantza taldea, Plaza Berrian.

Agur Erraldoia. Erraldoi eta buruhandien konpartsaaren agurra.

**20:30-22:00**

Artie Escolar DJ-a, Erizainen plazan.

**22:45**

60 urtez, *sua izan gara* Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketako ikuskizun piromusikala, Kontxako badian. Illusion Fireworks (Erresuma Batua) eta Pirotecnia Marti (Valentzia). Diseinatzailea: Karl Mitchell-Shead.

**23:10**

Irune Muguruza DJ-a, Kontxako badian. Musika eta laser ikuskizuna.

**23:30**

Zezenazkoen entzierroa. Ibilbidea: Miramar, Andia, Hernani eta Bulebarra.

Joselontxos txaranga, Parte Zaharretik.

Agur Asteari Plazan Berrian, Union Artesanarekin.

**23:30-02:00**

Iratzar dantzaldia, Erizainen plazan.

**23:45**

Leire Martinez, Tomas Alba plazan.




**ALTZARIAK  
BARNE DISEINUA**

**www.apal.eus**

Ametzagaña 7 · Donostia  
943 320400 · info@apal.eus

# Festetan ere aske! Indarkeria sexistarik EZ!

[ezezetzda.eus](http://ezezetzda.eus)

#noesno  
#festetanereaske

hariberria

SEXU-INDARKERIARI  
ARRETA INTEGRALA



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

Berdintasuna  
Igualdad

